

"SGIkerreko goi mailako teknikaria. Kalkulo Zientifikoa" LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESUA. 2019ko OTSAILAREN 1eko GERENTEAREN ERABAKIA ARIKETA BAKARRA: DATA ETA LEKUA

Deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2019ko otsailaren 1eko erabakia), **"SGIkerreko goi mailako teknikaria. Kalkulo Zientifikoa"** lan-poltza zabaltzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honako hau iragarri du:

LEHENENGOA.- Hautaketa-prozesuko ariketa bakarra, deialdiaren seigarren oinarriko 6.1 atalean zehaztuta dagoena, **2019ko ekainaren 19an** izango da, **9:30etan**. Lekua: **Martina Casiano Ikerketa Eraikian, 1 mintegian**. Bizkaiako Campusa. Sarriena Auzoa z/g, 48940-Leioan.

BIGARRENA.- Probaren zehaztasunak honako hauek dira:

- Ariketak bi zatí ditu. (1) aukera anitzeko erantzunak izango dituzten **100 galderazko** (eta **erreserbako beste 10**) galdetegi bat eta (2) Gaitegiarekin lotuta, Epaimahaiak proposatutako **hiruren artean ariketa praktiko bat**. Debeztatuta dago ariketetan edozein dokumentazioa erabiltzea, bai parepezkoa, bai elektronikoa.
- Lehenengo zatiaren iraupena **150** minutukoa izango da.
- Bigarren zatiaren iraupena **90** minutukoa izango da.
- Lehenengo zatia amaitu ondoren, epaimahaiak atsedena egingo du (15 minutu, gutxi gorabehera) eta lehenengo zatiko erantzun zuzenak jakinaraziko zaizkie hala eskatzen duten izangaiei.

Gogoan izan behar da azterketara nortasun agiria (NAN), pasaportea edo gidabaimena eraman behar dela (seigarren oinarriko 6.1.5. atala).

Leioa, 2019ko maiatzak 27.

Epaimahaiko idazkaria


José Manuel Nicolau